# ARRESE TA BEITIA

## OTXANDIO'KO OLERKARI OSPETSUAREN BERTSOAK BARRIRO ARGITARATUTA

Lendik be ez ditugu Arrese'ren bertsuak ixil-sokoan egonak.

Bere lenengo bertso-sailla 1900'an agertu zan: *Ama euskeriaren liburu kantaria* eritxon. Urte bi geroago, 1902'an, *Asti-orduetako bertsozko lanak;* ta andik urte mordo bat geroago, 1933'an, *Olerkiak* JAUNGOIKO-ZALE bazkunak argitaldu zituan. Bai ta bazkuna onek argitara emon eban beste *Bertso-sorta* txiki bat be, olerkariaren omenez Otxandio'n (1930'garren urtean) egin ziran jaietan zabaltzeko.

Gaur, ostera, iru liburu oneitako bertsuak eta bestetxoren batzuk geiago, emen dituzu sail mardul baten batuta. Ba-dira oindiño banakaren batzuk emen sartu ez doguzanak, baiña oso gitxi.

Gaiñera, bederatzi zatitan banaturik daukazuz bizkaitar seme argi onen bertso-lanak. Ona emen:

1.—*Kanta errikoiak.*—Ederrenak nunbait, askoren ustez. Biotz muiñetik urtenak bai beintzat. Eta geienak bere lantegian, santu ta irudigintzan eragoiola neurtu ebazan.

II.—*Lirika kantuak.* — Eztarri artean ezik, biotzean bai, Arrese'k baerabillen, bere ezkongei deitu geikeon otskin edo liratxoa. Ta onen ariai atzez ikuturik egiñak ditu neurtitz mazalak, txori antzean egalariak. Niretzat onetxek onenak be. Biotza negarti dogu geienez; Arrese'k negar egian; ez gero gaurko pilosopu Sartre, Heidegger, Zubiri, Unamuno ta beste askok lez negar larria; ez, etzan Arrese'na il-miñak emoten dauan negar ikarakorra, etsi goi-arnasduna baiño. Ikusi *Agur, Ume, Anjela, Illeta* ta antzekoak.

III.—*Goru kantuak.*—Egoki yaku beti gizaseme gurenak jasotea. Orrelaxe egin eban Horati'k bere oda bikaiñak idaztean: orrelaxe beste askok. Aren lorratzez ibillirik, euskaldun umantzak aipatu ebazan gure kantariak be.

IV. — *Imaloakoak.* — Onek be ez dira kaskar, nai ta euki egiñak baiño. Ta guztiak, eme batera jarten. Ba-dira onelako saillak beste ainbat idazleren bi: Lope de Vega, Quevedo, Shakespeare...

V. *Eliz kantak.* — Arrese olerkariak ugaria dogu ta erromantikoen bidetik ibillia. Ta beti, aurretikoen antzera ta bere erabilli arren, iñoiz ba olerkari arrein antzera be jokatzen dau; esate baterako, biotzez maite ebazanak eta erlejiñoko gauzak goratzean, sortzi bertso nausiko ahapaldiak, erderaz *octava real* deritxona erabilli eban.

VI. — *Alegiak.* — Ipuin antzeko onek antxiñakoak dira oundait. Kristo'ren jaiotza baiño bost gizaldi lenago bizi izan zan Esopo'k egin ei ebazan lenengoak; gero Fedro erromatarren artean, La Fontaine Prantzian, Samaniego ta Iriarte españolen izen aundikoak ditugu. Arrese'k be idatzi zituan, ta ez gitxi; baiña ez iñorengandik artuta gero, sail onetan askok egiten daben antzera. Itzkaitar onek, geienak beintzat, berebereak ditu azal ta mamin.

VII. *Ipuiñak.* — Bere burutik ateratakoak. Errian bazan trakets edo

griña itsarduneu bat, bai gizon bat, bai emakume; santugilleak bere ... duko eban bertso-zigorka ... ugaria dau onetan be; ... biribil antzera, biñako ... duak atonteko daus.

VIII. *Irakurgaiak.* — Gai ... diña dabe onek; batzuk ... zutu, beste batzuk ... alkar izketa, uskurtz aldeko ta ... Orraittiño, atsegiñez irakurtzeko ... nak, bai batzuk bai besteak.

IX. — *Erderatik euskeratuak.* — ... rrilla, Herrera, Quintana ta Velarde ... na ez dira erreztenak euskerara ... tzeko; Arrese'k, alan be, ... dagiz olerkari españar oreein ... epikoak euskeraz jarten, eta ... gaz gaizki jantzita. Ikuntza ... joskera ta gaiñerantzekoak ... bardiñak; baiña naikoa ... ratzen ditu eragozpenok. Iñoiz ... ahapaldi batzuk, egilleak baiño ... keratzalleak egokiago ... dau.

* * *

Liburuak 688 orrialde ditu, ta ... pezetan saltzen da.

Aita ONAINDIA

